

2017KO APIRILAREN 26AN BATZARRAK EGIN ZUEN EZOHIKO BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxeko Pleno aretoan egin du bilera 2017ko apirilaren 26an, arratsaldeko 19:10etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ABALTZISKETAKO UDALA (% 0,54%): Kepa Gorostidi Garmendia
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Carlos Ugartemendia Leunda
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Agirrezabala
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amondarain Tolosa
BALIARRAINGO UDALA (%0,21): Luis Lopez
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregui
IRURAKO UDALA (%2,73): Jesus Maria Alonso Insausti
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
OREXAKO UDALA (%0,20): Eneko Maioz Ganboa
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
VILLABONAKO UDALA (%9,61): Eneko Urdangarin
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ANDOAINGO UDALA (%23,92)
ANOETAKO UDALA (%3,09)
ASTEASUKO UDALA (%2,49)
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)
ELDUAINGO UDALA (0,39)
GAZTELUKO UDALA (%0,28)
HERNIALDEKO UDALA (%0,57)
LEABURUKO UDALA (%0,61)
LIZARTZAKO UDALA (%1,05)
ORENDAINGO UDALA (%0,32)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

1. **2016ko abenduaren 19ko Batzarraren Akta onartzea.**
2. **Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20161223.074tik LE20170407.017ra.**
3. **2016 ekitaldiko aurrekontuaren Likidazioaren berri ematea.**
4. **2017 ekitaldiko aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri ematea, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa, 2017-KALD-000002.00 zenbakiduna.**
5. **Garbigunerako harrera zerbitzuaren kontratazio-espedientea: Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onespren proposamena.**
6. **Garbigunetako edukiontzien garraio zerbitzuaren kontratazio prozedura: Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onespren proposamena.**
7. **Landare olioia eta hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzuaren kontratazio prozedura: Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onespren proposamena.**
8. **Hondakinen karakterizazioak; Biohondakin eta errefusaren karakterizazioen proposamenaren onspena.**
9. **Hondakinen bilketaren kudeaketa ereduak: Spora enpresak egindako azterketaren agiria.**
10. **Tolosaldeko konpostajearen ezarpena eta jarraipen plangintzaren bideoa.**
11. **Galde-erreguak**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanue Ugaldek eman dio fede aktari.

Lehendakariak Andoain, Anoeta, Asteasu, Gaztelu, Hernialde eta Lizartzako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ANDOAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ANOETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ASTEASUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

HERNIALDEKO UDALA: Ordezkaria, Jon Umerez Urrezola

LIZARTZAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2016ko abenduaren 19ko Batzarraren Akta onartzea

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20161223.074 zenbakitik LE20170407.017 zenbakira.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20161223.074	LE20170224.006	LE20170404.012
LE20170126.001	LE20170309.007	LE20170404.013
LE20170127.002	LE20170313.008	LE20170406.014
LE20170209.003	LE20170313.009	LE20170406.015
LE20170214.004	LE20170322.010	LE20170406.016
LE20170222.005	LE20170322.011	LE20170407.017

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. 2016 ekitaldiko aurrekontuaren Likidazioaren berri ematea.

Mankomunitateko Kontuhartzaileak 2016 ekitaldiko Aurrekontuaren Likidazioaren berri eman du. Likidazioa onartu duen Lehendakariaren Ebazpenak horrela dio, hitzez hitz:

“Mankomunitate honen 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Mankomunitate honen 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		1.740.058,41
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		1.029.298,10
Aurrekontuko zordunak :	992.612,35	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	36.685,75	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		474.840,48
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	422.095,13	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	52.745,35	

- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		2.294.516,03
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		2.294.516,03

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	150.695,75
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	165.244,02
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	315.939,77

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	376.142,05
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	254.017,42
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	630.159,47

2016ko Aurrekontuaren likidazioko gastu orokorretako altxortegi gerakina	2.294.516,03€
Kreditu gerakinen txertaketa	376.142,05€
GASTU OROKORRETARAKO ALTXORTEGI GERAKINA	1.918.373,98€

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Batzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Aurreko Batzarrean helegiteen taula aurkeztu zen. Horien fakturak eskatu ditut eta berdezkoak bakarrik agertzen dira.”

Lehendakariak: “Bai, jaso diren fakturak berdezkoak dira. Besteak, komentatu nuen bezala aurreikuspenak dira, zeren sententziak egon arte abokatuek ez dituzte minutak pasatzen.”

4. 2017 ekitaldiko aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri ematea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2017-KALD-000002.00 zenbakiduna.

Mankomunitateko Kontuhartzaileak 2017 ekitaldiko Aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman du. Kreditu aldaketa onartu duen Lehendakariaren Ebazpenak horrela dio, hitzez hitz:

“Ikusita Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2017-KALD-000002-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	80.000,00	8.000,00	72.000,00
GUZTIRA		80.000,00	8.000,00	72.000,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	26.000,00	8.000,00	34.000,00
GUZTIRA		26.000,00	8.000,00	34.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.”

Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

5. Garbigunetako harrera zerbitzuaren kontratazio-espeditentea: Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onspen proposamena.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “Tolosa eta Andoaingo garbigunetan daukagun harrera zerbitzuaren kontratua maiatzean amaitzen da eta kontratazio prozedura ireki beharra daukagu.

Tolosako garbigunean, ordutegi osoa subkontratatutako enpresa baten bitartez betetzen da eta Andoaingen, aldiz, ordutegi erdia, Mankomunitateak bertan, lanaldi erdian, langile bat duelako.

Prestatu diren baldintza plegu teknikoak eta administratiboak pasa zaizkizue. Aurreko kontratuan jasotzen ziren eskakizun berdinak mantentzen dira, baina aldaketa batekin: Tolosako garbiguneko ordutegiarena.

Tolosako eta Andoaingo garbiguneak, orain, eguerdian 12:30tan ixten dira eta arratsaldeko laurak arte ez dira irekitzen. Batez ere gremioak dira ordutegi honekin kexatzen direnak. Oso ordutegi zabala egiten zaie deskargatzeko aukerarik gabe. Aldiz, arratsaldeko azken orduan, seietatik aurrera, ia inor ez da izaten.

Hau ikusirik, Andoaingo garbigunean ordutegia berdin mantentzea eta Tolosako garbigunean ordutegia aldatu eta zabaltzea proposatzen dugu. Ordutegi berria honako hau izango litzateke:

- Astelehenetik ostiralera
9:00tatik 14:00etara
15:00tatik 17:30etara
- Larunbatetan
9:00tatik 13:30etara

Modu honetan, eguerdian aukera gehiago dago bai gremioek edo bai herritarrek erabiltzeko, eta nolabait eskaera horri erantzuna ematen zaio.

Prozedura ireki bidez esleituko da espendientea. Kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da eta beste bi urtez luzatu daiteke. Jarri den lizitazio prezioa ordukoa da, 16,06 euro BEZ-a barne. Lehiaketa honetan, soilik parte hartu ahal izango dute, Enplegu Zentro Bereziak diren eta Euskal Autonomi Erkidegoko Enplegu Zentro Berezien Erregistroan erregistratuta dauden enpresek.

Hala, kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea proposatzen da, prozedura martxan jartzeko. Era berean proposatzen da prozedura honetan hemendik aurrera hartu beharreko erabakietarako Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea.

Oraingo kontratua maitzean amaitzen da eta martxan jartzera goazen lizitazio prozedura hau amaitzeko baliteke beste hilabete bat edo gehiago behar izatea. Horregatik, kontratu hau amaitzen denetik, esleipen prozesua amaitu bitartean, beste kontraturen bat sinatu beharko da. Kontratu txikia bezala izapidetuko litzateke, 18.000 euroko kopurua ez bait dugu gainditzen.

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko garbigunetako harrera zerbitzuaren kontratua eta esleipen prozesua, prozedura ireki bidez, arautu behar duten espedientea eta Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Pleguak jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, iragarkia argitara eman ondoko egunetik aurrera.

HIRUGARRENA.- Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea, Tolosaldeko Mankomunitateko garbigunetako harrera zerbitzuaren kontratazio espedienteari dagozkion hurrengo akordioetan erabakiak hartzeko.

LAUGARRENA.- Orain indarrean dagoen kontratua amaitzen denetik, garbigunetako harrera zerbitzuaren esleipen prozesua amaitu bitartean, beste kontratu bat sinatzea, kontratu txikia bezala izapidetuz.

6. Garbigunetako edukiontzien garraio zerbitzuaren kontratazio prozedura: Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onespren proposamena.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “Tolosa eta Andoaingo garbigunetan dauden edukiontzien garraio zerbitzuaren kontratua maitzean amaitzen da eta kontratazio prozedura martxan jarri behar da.

Prozedura ireki bidez izapidetuko da espedientea. Kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da eta beste bi urtez luzatu daiteke. Kasu honetan lizitazio prezioa kilometroka jartzen da, zeren eta, zein frakziotakoa den edukiontzia, horren arabera planta batera edo bestera garraiatu behar da, distantziak desberdinak izanik. Prezioa: 2,31 euro/kilometroa, BEZa barne.

Esleipen irizpideak, proposamen ekonomikoa 55 punturekin baloratzen du, kalitate teknikoa 40 punturekin eta hobekuntzetarako 5 puntu utzi dira.

Hala, kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea proposatzen da, prozedura martxan jartzeko. Era berean proposatzen da prozedura honetan hemendik aurrera hartu beharreko erabakietarako Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea.

Oraingo kontratua maiatzean amaitzen da eta martxan jartzera goazen lizitazio prozedura hau amaitzeko baliteke beste hilabete bat edo gehiago behar izatea. Horregatik, kontratu hau amaitzen denetik, esleipen prozesua amaitu bitartean, beste kontraturen bat sinatu beharko da. Kontratu txikia bezala izapidetuko litzateke, 18.000 euroko kopurua ez bait dugu gainditzen.

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko garbigunetako edukiontzien garraio zerbitzuaren kontratua eta esleipen prozesua, prozedura ireki bidez, arautu behar duten espedientea eta Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Pleguak jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, iragarkia argitara eman ondoko egunetik aurrera.

HIRUGARRENA.- Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea, Tolosaldeko Mankomunitateko garbigunetako edukiontzien kontratazio espedienteari dagozkion hurrengo akordioetan erabakiak hartzeko.

LAUGARRENA.- Orain indarrean dagoen kontratua amaitzen denetik, garbigunetako edukiontzien garraio zerbitzuaren esleipen prozesua amaitu bitartean, beste kontratu bat sinatzea, kontratu txikia bezala izapidetuz.

7. Landare olio eta hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzuaren kontratazio prozedura: Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onespenez proposamena.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “Landa eremuko herrietan, hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruan, egoera desberdinak daude. Herri batzuetan udalak egiten du bilketa eta baita garbigunera eraman ere. Beste herri batzuetan, Ekogras enpresaren bitartez egiten dute bilketa eta Mankomunitatearen medioak erabiltzen ez dituen herriren bat ere badago.

Kontratua aurten amaitzen da, baina urte amaieran, orduan, lehendabizi, kudeaketa horiei dagokien informazioa jaso behar dugu. Hori dena bilduta daukagunean eta egoera berdin bat eskaini dezakegunean denentzat, orduan hasiko gara baldintza pleguak egiten. Hau prestatzeko ez dit denborarik eman eta puntu hau mahai gainean utzi beharko dugu.”

Beraz, mahai gainean uzten da gai hau.

8. Hondakinen karakterizazioak: Biohondakin eta errefusaren karakterizazioen proposamenaren onespina.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “ Azkeneko bi urte hauetan, Mankomunitatean karakterizazio desberdinak egin dira, bi urte jarraian errefusaren edukiontziak udalerriguztietan karakterizatu dira, konpostajearen ezarpena baloratu ahal izateko, batez ere landa eremuan, edo baita ere bilketa sisteman, beraien arteko desberdintasunak eta emaitzak konparatu ahal izateko.

Joan den urtean organikoaren karakterizazioak ere egin genituen, landa eremuan ez, ez dagoelako bilketa hori, baina, bai, gainerako herrietan, organikoaren bilketa dagoen herrietan, guztietan, bilketa sistema bat izan edo bestea izan.

Aurtengo ekitaldiari begira, aurrekontuak eskatu ditugu karakterizazioak egiteko, bai errefusarenak, joan den urtean bezala, eta baita organikoarenak ere. Errefusarenak kopuruz gehiago dira, landa eremukoak hor daudelako ere, eta jaso dugun proposamen ekonomikoaren arabera, errefusaren karakterizazioak egitea, 34.000 euro kostako litzateke eta organikoaren karakterizazioak berriz 15.000 euro.

Bilketa sisteman aldaketa nabarmenik ez dagoen herritan, errefusaren edukiontzien karakterizazioa egiteak, ez dakit, zenbaterainoko informazioa emango digun. Azken bi urte hauetan emaitza oso antzekoak lortu dira eta ikusita karakterizazioak duen kostua, proposatuko nizuke aurtengo urtean ez egitea errefusaren karakterizazioak eta esfortzu gehiago egitea aurtengo organikoaren karakterizazioan. Batez ere, egindako karakterizazioen emaitzetan, Ghk-ak jarritako organikoaren inpropioen maila, %5ekoa gehienez, batzuetan oso hurbil eta bestetan gaintitu egiten dugula ikusirik.

Jaso dugun proposamenean, organikoaren 22 karakterizazioen kostua 15.600 euro izango litzateke. Joan den urtekoak dira eta nik bakarren bat gehiago sartuko nuke, baina, hala ere, 18.000 euro baino gutxiago aterako da eta lizitazio bat egin gabe kontratu txikia bezala izapidetu ahal izango genuke. Hemen gertuko bi edo hiru enpresei aurrekontuak eskatuko genizkieke, guk jarritako baldintzekin eta proposamen ekonomiko hoberenari kontratua esleituz.”

Lehendakariak: “Bi urteko epean utzi daitezke errefusaren karakterizazioak egin gabe, baina aldaketak egiten diren herrietan, horietan bai, egin behar direla, errefusa eta organikoaren karakterizazioak.”

Ibarrako Udaleko ordezkariak: “ Ibarraren kasuan, errefusarenak egiteak ez dauka zentzua. Arazoa sortzekotan, ontzi arinak eta paperarekin izango litzateke, zeren errefusa astean behin irekiko da.”

Lehendakariak: “Nire ustez badauka zentzua, zeren atez ateko sistematik edukiontzi sistemara egin da aldaketa, eta guri, informazio hori, bai interesatzen zaigula Mankomunitatean. Hemen dauzkagun sistema desberdin guztiekin, oso informazio baliagarria ematen digu, tendentziak edo erabilera modu batzuk erakusten dizkigulako.”

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Organikoaren bilketa egiten den herrietan, organikoaren karakterizazioak egiteko proposamena onartzea.

BIGARRENA.- Bilketa sisteman aldaketak egiten dituzten herrietan, errefusaren karakterizazioak egiteko proposamena onartzea.

HIRUGARRENA.- 2017ko ekitaldiko Mankomunitateko Aurrekontuaren kargura, gastu orriaren 1 227.16.162.20 2017 karakterizazioak kontu sailaren-gain, adierazitako kontratazioa gauzatzeko gastua baimentzea.

LAUGARRENA.- Kontratazio prozedura kontratu txikia bezala izapidetzea.

9. Hondakinen bilketaren kudeaketa ereduak: Spora enpresak egindako azterketaren agiria.

Lehendakariak honela azaldu du hitzez hitz: “Aurreko Batzorde Iraunkorrean hitz egin genuen kostuen azterketa honi buruz eta orain deialdiarekin batera bidali zaizue guztiei txostena. Aurten amaitzen da Ute Tolosaldearekin 10 urterako izenpetu zen hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratua. Orain kontratua berritu behar denez, kostu azterketa bat egin da, etorkizunean zein sistema erabili edo zerbitzua nola emango dugun erabaki ahal izateko. Bi egoera ezberdin baloratu dira azterketa horretan, alde batetik, zuzeneko kontratazioa, eta, bestetik, kanpo kontratazioa. Txosten horretan ateratzen diren emaitzak berdintsuak dira, aztertutako bi sistemetan, %5 zerbitzu zuzena merkeagoa izanik. Ondorioz, esan daiteke, diferentzia ekonomikoa ez dela hain handia horren arabera erabakitzeke zabor-bilketa zerbitzuaren modeloa.

Baita ere, basearen gaia dago erabakitzeke. Orain, Uteak Ibarra dauka basea, baina, kontratua amaitzen denean, base hori ez da erabilgarria izango. Bi aukera daude irtenbidea emateko, alde batetik, konkurtso berria egiten dugunean, pleguetan adieraztea, lizitazioan esleitu izango den enpresak, berak jarri edo prestatu beharko duela basea edo, bestetik, guk, Mankomunitate bezala, gure base bat muntatzea. Horretarako, begiratzen hasi behar gara, jakiteko zeintzuk diren aukerak: kokapen aldetik, lur-eremuak, egin beharreko eraikuntza lanak...eta gainontzeko gastuak base bat egiteko.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Sporaren txostenak esaten du %5 izango litzatekeela alde ekonomikoa, bi sistema horien artean. Guk zalantzan jartzen dugu hainbestera iritsiko denik diferentzia hori. Guri iruditzen zaigu horrelako aldaketa sakona egin behar bada, arrazoiak pisu handikoak izan behar direla eta ekonomikoa horietako bat. Guk proposatzen dugu eztabaida egitea, egin behar bada. Arrazoi ekonomikoaz gain beste arrazoi batzuk egon daitezke eta bakoitzak bereak mahai gainean jarri beharko ditu.

Guk gure hautua egina daukagu, eta, momentu honetan, Villabonako eta Irurako udalen izenean ere hitz egiten dut. Horrelako zerbitzu batek behar duen malgutasuna, zerbitzu azpikontratatuak bakarrik emango digula. Bestetik, eztabaida egin behar da, baina epe motzean egin beharko da, ezin gara ibili honekin denbora luzean. Gu ez gaude urte bete itxaroteko prest.

Lehendakaria: “Zerbitzu azpikontratatuaren bidez malgutasun handiagoa lortzen dela, gauza batzuetarako baliteke, baina beste gauza batzuetarako, ez. Zuek oso argi daukazue zuen erabakia, baina besteok, edo nik behintzat, erabaki bat hartu aurretik, gaia ondo aztertuta, hausnartuta eta justifikatuta egotea nahiko nuke.”

Tolosako Udaleko ordezkaria: “Ni ados nago horretan, eztabaidatu dezagun, baina hasi gaitezen bihar bertan.”

Alegiko Udaleko ordezkaria: “Ereduen inguruan ikuspegi desberdinak eduki beharra daukagu, nolabait kolore politiko desberdinak gaudelako hemen. Nik gakoa ikusten dut, kontratu honek daukan garrantzia ikusita, adostasuna lortzeko borondatea ba ote dagoen gai honen inguruan. Datozen sei urteetarako lotuko duen egitura bat edo luzeagoa izan daitekeena, ongi funtzionatzen badu horrela jarraituko duelako. Eztabaida azkarrago edo polikiago egin daiteke, baina erabakia hartzeko, niri konbentzitu egin beharko dit modelo batek, baina besteak ere bai. Nik uste dut eztabaida ematea dela gakoa.”

Lehendakariak: “Niretzako gai garrantzitsuena, suposatu dezakeena kontratua luzatzea, erabaki hau hartzearena baino, iruditzen zait basearen gaia izan daitekeela. Hor eztabaidatu baino gehiago, egin beharko da erabaki. Horretarako beharko dira, zenbaki batzuk, aukera batzuk eta planifikazio bat. Hori hasi behar gara egiten, lehenbailehen, Mankomunitateak bere azpiegituran base bat edukitzeko.”

Alkizako Udaleko ordezkaria: “Nik ikusten dut, eztabaida hasi behar badugu, eta bihar hasi nahi badugu, zerbaiten gainean izan beharko dela. Proposamen horiek plazaratzeko eskatuko nizueke eta guztioi pasatzeko, baina proposamen zehatzak, zergatik nahi dugun hau edo bestea.”

Villabonako Udaleko ordezkaria: “Hemen uste dut denok argi dakigula irailak 1 noiz datorren. Orduan, eskatzen dugun bakarra da, eseri gaitezen eta hasi gaitezen lehenbailehen.”

Alkizako Udaleko ordezkaria: “Alde batetik txosten bat daukagu, datu eta elementu batzuk ematen dizkigu iritzi bat hartzeko. Zuek edo beste norbaitek, beste datu batzuk badituzue, eskertuko nizueke adieraztea. Eztabaidatu behar badugu, proposamen zehatzen gainean eztabaidatu beharko dugu.”

20:14etan Zizurkilgo Udaleko ordezkaria irten da.

Ibarrako Udaleko ordezkaria: “Nik zalantzak dauzkat, nahiz eta nahiago izan zerbitzua publikoa izatea, benetan zalantzak dauzkat Mankomunitateko zerbitzu batek nola funtzionatuko lukeen, zerbitzu publikoarekin. Orduan goazen dena mahai gainean jartzera. Baina, abiapuntua izan dadila hori baino irekiagoa, ez zuk esan duzun bezala, gure eredu hau da eta hau nahi dugu eta gainera ez bada horrela izaten atera egingo gara Mankomunitatetik. Hori oso abiapuntu txarra da.”

Orexako Udaleko ordezkaria: “Puntu batean nik uste dut denok ados gaudela. Luzapen bat egiten bada, izan dadila erabaki dugulako, hobe delako, beste erremediorik ez dagoelako edo dena delakoa. Denak ados gaude horretan eta baita ere eztabaida bat egon behar duela.”

Alkizako Udaleko ordezkaria: “Erabaki hau hartzeko, beste datu edo informazio batzuk izatea, bai interesatzen zait, adibidez, beste Mankomunitatetan zein eredu dauzkaten, edo posible ote litzakeen Tolosaldean enpresa bat sortzea, bertakoa, horretaz arduratu daitekeena, edo beste konbinazio batzuk egin ote daitezkeen. Lehenago, gauza zehatzagoak edo proposamen konkretuak eskatzen nituenean, honelako gauzei buruz ari nintzen hizketan.”

Tolosako Udaleko ordezkaria: “Gure helburua kontratu honen amaiera da. Hortik atzera egutegi bat markatu eta hori bete. Eztabaidarako 15 egun behar badira, denbora hori erabiltzea eta ez daitezela 15 hilabete bihurtu. Hori da eskatzen dugun bakarra.”

Lehendakariak: “Uste dut ulertuta geratu dela gaia eta hitz egingo dugu nola egin egutegia.”

10.Tolosaldeko konpostajearen ezarpena eta jarraipen plangintzaren bideoa.

Lehendakariak honela azaldu du hitzez hitz: “Azkeneko konpostaje kanpainan egin zen proiektua. Bertan, karakterizazioak, konpostajearen ezarpenak eta jarraipenak agertzen dira. Prozesu guztiaren bideo bat egin zen. Bideo hori guztiei bidali zaizue eta proposatzen da, aurrera egitea bideo horrekin, ikusten den plataformatan ateratzeko: web orrian, atarian, 28 kanalean edo beste lekuren batean.

Batzorde Iraunkorrean ere komentatu genuen gai hau eta Tolosako Udaleko ordezkariak bideo horri obserbazio batzuk egin zizkion. Niretzat behintzat, gauza izan den bezala dago eginda, eta nik proposatzen dut bideo horrekin aurrera egitea. Ez dut nik hartuko erabaki hori, baizik Batzarrak erabaki dezala bideo hori egokia iruditzen zaien edo ez.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Hori bozkatzen da eta bozketan irteten dena egingo da. Nik bideo hori bere garaian ikusi nuen eta niri iruditzen zait oso desegokia dela. Bideo honen arabera, birziklatzea herri honetara zuekin iristen da, eta niri ez zait iruditzen hori horrela izan denik. Hemen, gaikako bilketa, urte askotako lana eta jende askok egina izan da. Propaganda politikoa iruditzen zait eta nik ez zintzilikatzeko eskatuko nizueke.”



Lehendakariak: “Bideo horretan, funtsean hitz egiten da, azken 4 urteetan, nola egin den konpostaje kanpaina, zenbat ezarpen egin diren eta horien jarraipenei buruz. Bideo horretan hainbat pertsona agertzen dira: kanpaina horiek egin diren bitartean Mankomunitatean egon diren arduradunak, Andoaingo Alkatea, Tolosako udaleko ordezkaria, Mankomunitateko Teknikaria, konpostajearen ibiltzen den langile bat eta herritar batzuk beren iritzia ematen konpost-egiteari buruz. Konpostajearen datuak ematen dira eta horrek zer suposatzen duen adierazten da. Niretzako guztiz objektiboa da bideoa.”

Ondoren proposamena bozkatzeari ekin zaio, honako emaitza atera delarik:

-Proposamenaren alde: 17 boto (Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Andoain, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Lizartza, Oresa, eta Zizurkil)

-Proposamenaren kontra: 3 boto (Irura, Tolosa eta Villabona)

-Abstentzioa: 4 boto (Abaltzisketa, Albiztur, Baliarrain eta Larraul)

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko konpostajearen ezarpen eta jarraipen plangintzari buruz egindako bideoa, ikusgai egon daitekeen plataformetan zintzilikatzea.

20:47etan Villabonako Udaleko ordezkaria irten da.

8. Galde-erreguak.

Lehendakariak hartu du hitza jakinarazteko, batetik, Ghk-ri egin zaizkion eskaerak, helegiteak, errekursoak eta prestatu ziren txosten juridikoa eta ekonomikoa, Mankomunitatean daudela norbaitek nahi baldin baditu ikusi. Bestetik, jakinarazi die Batzarkideei, Jose Luis Unanue, Mankomunitateko Idazkaria, jubilatu egiten dela, bere azkeneko Batzarra izanik gaurkoa eta eskerrak emanez hainbeste urtetan Mankomunitatean egindako lanarengatik.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko 20:50ak direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA